

## INFORMAZIO OHARRA

### **Euskararen eta ezagutzaren aldeko sinergiak sortzeko aliantza berria**

*Eusko Ikaskuntzak eta Euskaltzaleen Topaguneak lankidetzan aritzeko  
konpromisoa hartu dute sinatutako hitzarmenaren bidez*

**Andoain, 2023ko urtarrilak 24.** Euskal gizartearen beharrei erantzun global eta integratzaileak ematen lan egiten duen erakundea: Eusko Ikaskuntza (EI), 1918an sortua. Eta 1997az geroztik tokiko sozializazio- eta komunikazio-eremuetan euskararen erabilera sustatu nahi duen beste bat: Euskaltzaleen Topagunea Federazioa (ETOP). Bi erakundeek, datozen lau urteetan, bientzako interesa duten proiektuen inguruan harremana estutzea erabaki dute, eta hala islatu dute Eusko Ikaskuntzako lehendakari Ana Urkizak eta Euskaltzaleen Topagunea Federazioko lehendakari Kike Amonarrizek Andoainen sinatu berri duten hitzarmenean.

2020az geroztik bi erakundeak lankidetzan ari dira Nafarroako Aniztasunaren Kudeaketa Demokratikorako proiektuan, Eusko Ikaskuntza buru dutela, bai eta Euskaltzaleen Topagunearen Euskararen Aldekotasuna Handitzeko Gakoak Nafarroan. Esperientzia horien balorazio positibotik abiatuta, hitzarmen berriak harreman kualifikatuen esparrua finkatzen du, erakundeetako bakoitzak dituen helburuak zehaztasunez eta kalitatez lortzen laguntzeko.

Hitzarmen horren arabera, Eiko zein ETOpeko kideek osatutako jarraipen batzorde batek une bakoitzean zehazten dituen jardueretan lagunduko dute, abian diren proiektuetan zuzenean inplikatur edo lan eta ikerketa arloetan ezagutza trukatur. Zehatzago esanda, aurten ETOpek 2024an Eusko Ikaskuntzak egingo dituen biltzarretan parte hartuko du. Era berean, Eusko Ikaskuntzak Euskaltzaleen Topaguneak euskararen erabileran jauzi bat egiteko sustatuko duen Aldaketaren Teoriaren prozesuaren alde egingo duela bermatzen du.

## NOTA INFORMATIVA

### **Nueva alianza para generar sinergias en favor del euskera y del conocimiento**

*Por medio del convenio firmado, Eusko Ikaskuntza y Euskaltzaleen Topagunea se comprometen a colaborar desde sus respectivos ámbitos*

**Andoain, 24 de enero de 2023.** Una entidad que trabaja en la elaboración de respuestas globales e integradoras a las necesidades de la sociedad vasca: Eusko Ikaskuntza (EI-SEV), creada en 1918. Y otra que desde 1997 busca potenciar el uso del euskera en los espacios de socialización y de comunicación locales: Euskaltzaleen Topagunea Federazioa (ETOP). Dos entidades que han decidido estrechar lazos en torno a proyectos de mutuo interés en los próximos cuatro años, y así lo han plasmado en el convenio recientemente firmado en Andoain por Ana Urkiza, presidenta de Eusko Ikaskuntza, y Kike Amonarriz, presidente de Euskaltzaleen Topagunea Federazioa.

Desde 2020, ambas instituciones vienen colaborando en los programas Gestión Democrática de la Diversidad en Navarra, liderado por Eusko Ikaskuntza, y Euskararen Aldekotasuna Areagotzeko Gakoak Nafarroan (Claves para la Mejora de las Actitudes a favor del Euskera en Navarra), de Euskaltzaleen Topagunea. Partiendo de una valoración positiva de estas experiencias, el nuevo convenio fija un marco de relaciones cualificadas que contribuyan a alcanzar, con rigor y calidad, los objetivos que cada una de ellas tienen señalados.

Conforme a esto, integrantes tanto de EI-SEV como de ETOP colaborarán en las actividades que en cada momento determine una comisión de seguimiento, implicándose directamente en los proyectos en curso o intercambiando conocimiento en las correspondientes áreas de trabajo e investigación. Más en concreto, tomarán parte en sus respectivos congresos previstos para este año en el caso de ETOP y para 2024 por parte de EI-SEV. Asimismo, Eusko Ikaskuntza garantiza su apoyo al proceso Aldaketa Teoriaren (Teoría del Cambio) que Euskaltzaleen Topagunea va a promover con el objetivo de dar un salto en el uso del euskera.